

Non disfrutatu otordu goxo batez etxeko goxotasunean baino hobe? Horiek dira *Etxean Goxo* enpresak konbinatzen dituen bi alderdiak: menu goxoak eta etxeko goxotasuna. Bezeroen etxeetan sukaldatzen duten chef pribatu zerbitzua eskeintzen dugu bi faktore horiek bat egin dezaten. Gure sukaldariak familien etxeetara gerturatzen dira eta bertan prestatzen dituzte horiek eskatutako otorduak, beraien eskaeren arabera zerbitzu malgu eta pertsonalizatua eskeiniz.

Gure zerbitzua onuragarria da aisialdirako denbora eskasa duten pertsonentzat, etxera heltzerakoan beraien otordua prest izango bait dute. Baita ere, sukaldatzea gustoko ez dutenentzat zein sukaldatzen ez dakitenentzat eta kalitatezko bizitza osasuntsuari garrantzia ematen diotenentzat ere. Izan ere, gure sukaldariak elikagai guztiak jasotzen dituzten dieta orekatuak momentu egokienean prestatzeaz arduratzen dira.

Gabonak, urtebetetzeak edota beste ospakizun berezien kasuetarako ere gure zerbitzua oso baliogarria izan daiteke, horrelako topaketek lan eta buruhauste ugari ekartzen bait dituzte. Zaila izaten da hainbeste pertsonentzako sukaldatzea, kantitateak kalkulatzea eta denen gusturako zerbait sortzea. Bazkariaren edo afariaren prestaketa gure sukaldarien eskuetan utzita, ezerk ez du hutsik egingo eta bide batez, familiako kide guztiek elkarrekin disfrutatzeke aukera izango dute sukaldaria prestaketa lanetan dabilen bitartean.

Gure profesionalak prestatutako plater goxoak dastatzean, sukaldaritzaren munduan murgiltzeko interesa suertatzea ez da harritzekoa izango. Lasai, hortxe izango gaituzu ere, gu bezain ondo sukaldatzen ikas dezazun, sukaldaritza kurtsoak eskeintzen bait ditugu ere.